

V - BESTELAKOAK

ARABAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ZERBITZUEN GANBERA

Arbitraje ebazpena jakinaraztea. LAUDOIA

Bat etorri Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialeko Arbitraje Zerbitzuaren Erregelamenduko 6. artikuluan (Jakinarazpenak) xedatutakoarekin, Golf de Larrabea SA merkataritza sozietateak aurkeztutako Jose Domingo Garin Urdampilletaren aurkako demandari dagokionez, eta kontuan hartuta ezinezkoa izan dela demandatuari laudoa burofax ziurtatu bidez jakinaraztea auzi jartzaileak emandako helbidean, ALHAOko iragarki honen bidez honakoa jakinarazten zaio:

Laudoa eman da adierazitako arbitraje prozeduran.

Laudoaren aurka, Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberaren Arbitraje Zerbitzuaren Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat etorri, laudoa zuzentzeko, argitzeko edo osatzeko eskatu ahal izango du, iragarki hau argitaratu eta hurrengo bost egunen barruan.

Era berean, eta aipatutako erregelamenduaren 43. artikuluen arabera, Arbitrajeari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen 40. artikuluari eta hurrengoei dagokienez, hura deuseztatzeko akzioa baliatu ahal izango du iragarki hau argitaratu eta bi hilabeteko epean, edo, laudoa zuzentzeko, argitzeko edo osatzeko eskatu bada, eskaera horren ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Hori guztia, jasota utzita bai arbitraje ebazpena edo laudoa, bai aipatzen den eta espedientean jasota dagoen gainerako dokumentazioa demandatuaren eskura daudela aipatutako Arbitraje Zerbitzuaren bulegoetan (Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofiziala, Dato kalea 38, Vitoria-Gasteiz).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 7a

Arbitro bakarra

EDUARDO JOSÉ CERVERA DE ARANA